






ORRATX 800!

LEZOKO ALDIZKARIA


1203 - 2003



EKONOMIAREN ILDOTIK

Argazki honek ez ditu urte asko ez, baina egin zenetik denbora luzea pasatu dela ematen du. Balio beza aurkezpen honek helduei gogorarazteko, gazteei ezagutzeko eta guzioi pentsarazteko





800 EKONOMIA

ORRATX!· LEZOKO ALDIZKARIA

2 0 0 3 K O E K A I N A
ZENBAKI BEREZIA

Aldizkari honek erakunde honen laguntza jaso du:



Lezoko Unibertsitateko Udala

NON ZER

4 **zirika**

6 **erreportajea**

Sagardogintza, Lezoko iharduera



8 **elkarrizketa**

Herriko industriaren historiaz

12 **erreportajea**

Lezoko baserriak

14 **erreportajea**

Lezoarrak eta itsasoa



18 **ze berri**

Herriko berriak labor-labor

21 **moko goxo**

Webgunetik argazki zahar bat nola lortu

ATARIA

Historiaren motorra eta gurpila

Historiako aldiak bereizteko, maisu adina dotrina izan dela eta oraindik ere badela esan beharrik ez dago. Hala ere, joera nagusia ekonomiaren produkzio sistemaren arabera bereiztea dela esan liteke. Azken batean, guda eta liskarrik gehienak, gertaera politikoak, alegia, ekonomiari edo, hobeki esan, haren kontrolari hertsiki loturik egoten dira.

Gure herriak ere 800 urteko historian denetik bizi izan du; sistema produktiboen aldaketak, gudak, liskar latzak, aldi oparoak... Historia bilakera da, etengabeko eraldaketa, gizaki eta herri gisa garatzen goaz, batzuetan sinesgaitza dirudien arren. Gauza txar eta anker ugari gertatu arren, beti, aurreratzen ari gara. Ustekabean, motel-motel beti garatzen ari gara. 800 urteko mugarriari begira gaude orain, baina lur eremu honetan aurretik ere baziren gizon emakumeak, eta haiek ere suaren aurkikuntza edo iraultza neolitikoa bezalako iraultzetatik zetozen, nahiz eta historiaurreko aldiak askoz ere luzeagoak izan eta aldaketak motelago gertatu.

Urtemuga honetan iraultza baten edo batzuen begi-begian gaudela bistakoa da; batetik, iraultza teknologikoa, eta munduaren antolaketa eta ikuskera iraultza (krisia) bestetik. Bigarren hau nahasiago eta motelago badoa ere, lehendabizikoa sua dariola doa, nora ez dakigun arren.

Guzion egitekoa, lezoar guzian egitekoa, herriaren hobekuntza da. Kalitate eta duintasun osoko bizimodu baten alde lan egitea. Herritar guzien eskubide guziak errespetatuz hasi eta ingurumenarekiko elkarbizitza orekatu bat lortu arteko, kolore, matiz eta xehetasun guziak zainduz, egungo iraultzak, bide onetik bideratzen saiatu beharra dugu.

Gure herriak erakutsi du 800 urte hauetan egoera zailetatik irteten bada kiela, lanaren eta ahalegin zintzoaren poderioz eta aurrerantzean ere guzian ongizatearen bidean urratsak emateko gai izango garela ziur naiz.

Ekonomiari eta produkzio moduei begiratuz atondu dugun Orratx! berezi honek urte hauetako garapena erakutsi nahi dizu bere xumean.

JOXE LUIX AGIRRETXE

BERTSOAK

Badago zer pentsatu

Doinua: Nagusia eta maizterra

MARTZELINO "ARGIÑANE"

1 Lezon jaio ta bertan bizi naiz ta ez nago damututa hain zinan herri zoragarria nonahitik begiratuta zoritxarrean ikusten zaitut gaur zeharo aldatuta negar malkoak etortzen zaizkit zer zinan gogoratuta

3 Zortziehun urte bete dituzu egina duzu zahartzera itxura txartzen hasita zaude amona zaharran antzera pabiloi tzarrak ugaldur dira ta baserriak galtzera aurrerapenek zer dakarkiten koturatutzen al zera?

5 Gure aurreko guraso zaharrak handik bultza hortik tira zenbat izerdi zenbat nahigabe irten nahiean argira guk utzitako sagasti eta baratza ederrak non dira galdera egingo lukete berriz munduratuko balira

7 Urte gutxitan herrian gauza ederrak egin dirade etxe bikainak kiroldegia ta pistinak paraz-pare baina ez du inork ezer egiten nekazariaren alde lehenago gaizki baldin baginan leku ederrean gaude

2 Baserri txuri berdin gabeak ingurune zabalean zer ikuskizun zoragarria Jaizkibelen magalean denak ezagun, denak euskaldun baserrian ta kalean lorategi bat zinan orduan polita orain aldean

4 Garai batean baziren hemen gutxienez ehun bat baserri orain erdira jaitsi zaizkigu ta daudenak oso larri irtenbide bat eman beharra dago egoera horri edo bestela baserrikan gabe gera Lezon sarri

6 Jaizkibeiko superpuertua modan dagon albistea gaintxurizketa pabelois bete ez alda gauza tristea errepideak dena zapalduz alde batetik bestea ez da erreza gure gainera zer datorren sinistea

8 Nik abisu bat bialdu nahi dut agintariaren gana etzazutela aurrera eraman egina dezuten plana lurretik dator gure izakera lurretik gure zer jana naizta hamaika harro badagon hori astutzen duana

Zuen kolaborazioak ORRATX! Aldizkaria Kale Nagusia 3 behera bidali.

munttartik

JOXE MARI SALABERRIA
HARAKINA



OHITURA ALDAKETAK

Azken urteetan bizimodua asko aldatu da herrian. Nire lanbidean ere nabarmena da hori, erosteko ohiturak ez dira ni hasi nintzeneko berak. Lehen biztan-

le gutxiago zegoen, eta familien egoera ekonomikoa ez zen oraingoa baino hobea, baina, beste modu batean erosten zen. Bezeroak finkoak ziren. Familia bat denda batera joaten bazen, beti joango zen hara. Bizitzeko ereduak aldatu dira, eta orain, erosketak edonondik bueltan gertu tokatzen den dendan edo supermerkatuan egiten dira. Beste aldatetako bat maiztasuna da. Orain, astean behin egiten da erosketak, lehen aldiz, egunero.

Nire kasuan, jateko gaiak saltzen aritu naiz azken 30 urteetan, eta jateko ohiturak ere asko aldatu dira. Garai batean etxekoandreak erosketak egin eta bazkaria prestatzen zuen horretarako denbora hartuz. Egun, bazkaria prestatzen denbora gutxiago pasatzen du familia batek, etxera produktu elaboratuagoak eramaten ditu, ez da denbora galtzen dendaz denda ibiliz. Orain elikadurari ez diogu kasu handirik egiten, nahiago izaten dugu oporrak antolatzen aritu. Garai batean, goizen jaiki eta eltzeta sutan jartzea zen lehen lana. Orain, mikro-hondasean zerbait sartu eta bost minututan bazkaria prest dugu. Baina honek etxeko ekonomia garestitu egiten duela kontutan hartu behar dugu, eta jaten dugunaren kalitatea ere jaitسي egiten da.

Komertzioaren arazoak ari gara, gora eta behera, azken urteetan, baina kontutan hartu behar dugu aurretik zegoena ere ez zela izugarri ona. Herrian komertzio bizi zen familia askorik ez zegoen, kasik orain bezain beste. Jeneralean, familiako kide batek komertzioan lan egiten zuen, baina etxeko besteren bat fabrikatzen, edota beste edozertan aritzen zen. Beraz, ezin dugu esan Lezoko komertzio bizi familia asko bizi izan denik.

Ezin dut aipatu gabe utzi Lezotarrak Dendari Elkartearen esperientzia. Duela 15 bat urte 27 komertzio bildu ginen hartan. Lan polita egin genuela esan daiteke, baina hura bukatu zen eta etorkizunari begiratu behar diogu orain. Aitor Sarasolari eta bere udal taldeari errekonozimendu bat egin behar diot. Lan handia egin dute azken urteetan herrian dendari elkarte bat sortzen laguntzeko. Hor izan dira era berean Oarsoalde Garapen Agentziakoak aholkularitza lanetan. Aipatutako laguntza eta herriko komertzioen lanari esker, laster, herriko dendari elkarte berri bat jaiotzen ikusiko dugu. Esan bezala, aurreko esperientzia oso ona izan zen eta oraingo honi ere bide luzea opa diot. Guk egindakoak hobetzen saiatuko direlaokan nago.



1 Artzaina zara bokazioz ala tradizioz?

Esan liteke familiatik heldu zaidala, baina bokazioa edo gustuko izatea ere ezinbestekoa da artzain izateko, horretan ez dago dudarik.

2 Noiztik zara artzain?

Soldaduska bukatuta artalde bat erosi nuen eta berarekin ibiltzen hasi nintzen. Hemeretzi urte nituen.

3 Ez al zara aspertzen egun osoan bakarrik mendian?

Afizioa baldin baduzu, ez zara aspertzen. Gustuko tokian ez dago aldaparik.

4 Errentagarria al da gaur egungo artzaintza?

Errentagarria izateko ardi asko jarri behar dituzu eta

Ttanttoka.

ANDER LEON

HAMAR GALDERA XELEBRE

NOR: RAFAEL GAZTELUMENDI

NOLA: RAFA

ZER: ARTZAINA



inbertsio handiak egin. Gastu handia behar da errentagarria izaten hasi baino lehen.

5 Ardiak sibiratik edo moko-goxoak al dira?

Zenbat eta janari klase gehiago eman orduan eta hobe. Pentsua, soroan ibili, alfalfa, belar ondua, artoa, babak,...

6 Nora eramaten dituzu paseoan?

Jaizkibelgo antena alde horietara, hortxe ibiltzen dira, gain-gainean, hasi paradorretik eta gurutzea badago hemen, atze honetan? Bi aieketan ibiltzen dira.

7 Txakurra lagun ona izango da...

Txakurrik ez banu, ez nuke

ardirik bordatik aterako. Erakutsiz gero, dena berak egiten du. Oso gustukoak ditut ardi-zakur lehiaketak.

8 Zein da ardi arrazarik onena?

Klima honetarako latxa arrazakoak dira egokienak. Medina eta arraza horiek ezin dute hemengo hezetasuna eraman. Ni beti latxarekin ibili izan naiz.

9 Zergatik gustatzen zaizu artzainaren bizimodua?

Nire gustura ibiltzen naizelako, afizioa dudalako, ez nagoelako inoren menpe eta lan erritmoa nik markatzen dudalako.

10 Nik ere artzain izan nahi dut...

Zaila iruditzen zait. Berezko zera bat behar da. Ardia eza-gutu, haren joan-etorri guztiak jakin,... bestela jai daukazu. •

Argazki inkesta.

ANDER LEON / IÑAKI BERRIO

Ekonomia aldetik, lezoarron bizimoduan azken garaietako aldaketarik handienetakoa euroaren etorrera izan da. Hori dela eta, jakin nahi izan dugu nola moldatzen diren bi urte dituen txanpon berriarekin

Nola egiten dituzu kalkuluak eurotan ala oraindik pezetatan?



INAXI IRAOLA

Erdia eurotan eta erdia pezetatan, hau da, eurotan ordaintzen dut, baina buruan daukadana pezeta da oraindik.



ELI ARTOLA

Biekin ongi moldatzen naiz, baina pezetatara pasatzeko joera daukat.



JUANI URKIZU

Pezetatan oraindik, bai euroekin baita xentimoekin ere, aldaketa egiten dut segituan.



MIREN EGILUZ

Nik pezetatan pentsatzen dut, kalkulatu eta hitz egiten dut, eta zaila egingo zait euroetara txipa aldatzea.



FERNANDO SANCHEZ

Pezetatan, euroarekin ez naiz batere moldatzen. Gainera prezio guztiak igo egin dira, tabakoa, basoerdiak,... Diru honek ez du ezertarako balio.



JONE LAZARO

Pezetatara pasatzen dut, baina euroarekin oso ongi moldatzen naiz kalkuluak oso arin egiten ditut, ez zait asko kostatzen, baina pezeta ez daukat ahaztuta.



KARMELE ITURBE

Nik euroak ikusten ditudanean, pentsatzen dudana da zenbat pezeta izango diren. Kantitate ttikietan antolatzen naiz, baina bestela kalkuladorea hartzen dut.



JOSE LUIS ETXEPETELEKU

Pezetatan, zalantzarik gabe. Aldaketa egiten dut beti. Xentimoekin hobeto moldatzen naiz, baina hala ere, ideia egiteko, pezetatan pentsatu beharra daukat.



SAGARDOGINTZA ALDI BATEKO JARDUERA OPAROA

Lezoarrek euren lapiko eta eltzeak bete ahal izateko izan dituzten bideak aztertzen ari garelarik, bada aipamen berezia merezi duen beste jarduera bat, historiaren aldi jakin bat bete arren, herriari ospea eman eta garrantzi handia izan zuena: sagardogintza.

Gure herria sagardoaren hiriburu izana dela diote herriko zaharrenek. Gazte jendea kostu egiten zaio halere, hori sinesten, izan ere, egungo egoera ezaguruta, zail da aurreko loraldi edo oparotasuna irudikatzen.

Egun Urdaburu auzoa dagoen horretatik hazi eta Gaintsurizketako kaxkoraino, ezker-eskubi sagasti handi baten modukoa zen Lezoko lurraldea. 1926an, adibidez, herriko lur eremuak 26 Ha. sagastiak ziren. Bordatxoko Gregorio Arutiren arabera, sagarrondo handiak eta zaharrak ziren nagusi herriko sagastietan. Gizon batek bi besoekin ezin bildu zituen gerriak zituzten sagarrondo askok Gregorioren esanetan. Sagar mota ugari zen herrian eta mota bakoitzetik "karga" ugari

lortzen ziren. 1913an, esaterako, 1.800 "karga" sagar bildu zirela diote kronika zaharrek. "Karga" bakoitzean sei zaku sagar sartzen zirela kontuan hartuz, gure sagastien produktioaren neurriaz jabe gaitzake.

Lezo sagardoaren hiriburu zela esan dugu arestian, baina izen hori ez zuen sagastien oparotasun eta ugaritasunagatik bakarrik merezi, izan ere, bertako sagarrak ospe berezia zuen. Gregorio Arutik ale handiak zirela oititzen du; "Ale ederrak ziren, urtsu-urtsuak, besteak baino kolore eta granilo hobekoak ziren". Lezo sagarra izena duen mota bat badela jakinik, kontuak atera ditzakegu. Herriko sagastien oparotasunaren arrazoiak bilatzen hasita, denetik entzun izan dugu,



baina arrazoirik sendoena herriko lurren osaketan datzala dirudi; lur buztintsuak dira antza hemengoak eta horrek sagastiei mesede egiten diela dirudi.

Bestalde, gure herrian sagardoak izan duen garrantziaz ohartzeko beste datu bat ekarriko dugu lerro hauetara. Urteko sagarraren prezioa ezartzeko tratua plazako Indio-enea edo Gure Borda etxean ixten zen Santakruzak pasatu eta berehala. Inguruetak sagardogile garrantzitsuenak gurean biltzen ziren kontu horiek argitu eta erabakitzeke. Gregoriot dioenez, hala ere, herriko sagar kiloa bestetako baina ia pezeta bat gehiago ordaintzen zen.

Sagardogintzak jarduera gisa herrian zuen neurriaz jabetzeko beste neurgailu egoki bat tolar eta sagardotegi kopurua izan daiteke. Baserrietako tolar eta sagardotegiak alde batera utziz, herri kaxkoan zeudenak aipatuko ditugu. Batzuek tolarrea zuten eta beste batzuek kupelak bakarrik: Kale Nagusiaren goialdetik beherantz hasiz, Alaietxan, Sistiaga enean, Andrexeneko Tolarietan, Txalupagain etxearen bazterreko etxolan (egun ez dago etxola hori, baina Joxe Ugaldek ardo-almazena eduki zuen hartaz ari gara), Maripoxa enean eta Itxuen. Plazan, berriz, Gure Bordan eta Galardin, nahiz eta honek sarre-ra Donibane kaletik izan. Donibane kalean, Filipenearen behealdean, Polentzarrenera ematen duen atetik sartuta. Zubitxo kalean, azkenik, Txerrimuñon.


Arrutik adierazi digunez, garai hartan sagardoa eguneroko edaria zen lezoarentzat eta familia askok urteko pasagarria egiteko adina sagardo hartzen zuen. Askotan pitarra edaten zen, urarekin nahastutakoa alegia. Ez zuen egungo erriro kutsurik sagardoak orduan, ez orain adinakoa behintzat. Honek ez du esan nahi jai giroan, sagardotegian-eta, edaten ez zenik, egonaldi ederrak egiten zituzten kupel tartean ordukoek ere. Txotxetik, pitxarretik edo porroitik edaten zen sagardoa, txitxarro, sardina, berdel edo bixiguz lagunduta gehienetan.

Non dira, ordea, orduko sagasti eta sagardotegiak? 1936-39ko gerrak berebiziko astindua eman zion sagardogintzari gure herrian. Sagardotegi guztiak itxi egin ziren aldi horretan eta gerora batzuek atea berriz zabaldu bazituzten ere, askok betirako itxi zituzten. Kalean azkena itxi zen sagardotegia Txerrimuño izan zen, 1954an, eta baserrialdean, Bordatxo, 1960an.


Sagastiei dagokienez, berriz, gerra garaiko itxierak eta ematen zuten etekin urriak asko desagertarazi zituen. Honetaz gain, egun oraindik ere bereak eta bi egiten dituen ontto baten bidez garatzen den gaitzak sagarrondo asko lehortu zituen. Arrazoi hauei, industria lurren beharra eta kutsadura ere gehitu dizkiete askok. Kontua da egun 5 Ha. inguruko hedapena dutela guztira herriko sagastiek. Eta aipatu onttoaren eraginez sagarrondoen bizitza 4 urte ingurura murriztu da.



Esperantzari leioa beti zabaldu behar omen zaio eta alde horretatik oso pozgarria eta baliogarria da herriko zenbait sagardogilek eta Tiñelu elkarteak hartu duten jarrera. Herriko sagardogintza sustatzen ari dira azken urteetan, eta produktio tikiak baldin badira ere, urtez urte gehiago dira sagardogileak, eta beraz, tradizioak bizirik dirau gure baserrietan •



Gotzon Garmendia eta Alaitz San Roman Herriko industriare



Gure herriak bete dituen, edo hobeki esanda, betetzen ari den urtemuga berezia dela eta, Aranzadi elkarteak ikerketa bat egin berri du herriko hainbat ekonomia-arloren inguruan. Hori aprobeztatuz, Gotzon Garmendia eta Alaitz San Roman elkarrizketatu ditugu XX. mende hasieratik erdialdera bitartean herrian zer nolako industria zegoen azal diezaguten.

Noiz, nola eta zergatik sortu zen Lezoko industriari buruzko ikerketa egiteko ideia?

Lezoko udaletxetik jaso genuen Aranzadin herriaren historiari buruzko ikerketa egiteko deia. Hasiera- hasieratik Lezoko Unibertsitateko Udaleko Aitor Sarasola alkate jaunak eta Imanol Esnaola zinegotziak azaldu ziguten beraien eta herri-tarren nahia XX. gizaldiko herriaren historia ezagutzeko oinarri metodologiko sendoak jar zitezten. Lan-bilera batzuen

buruan, gure aholkuei jaramon eginez (eskura errazak izan zitezkeen informazio iturrien balorazioan oinarritu genituenak) gizaldi honetako demografia eta industrializazio prozesuari buruzko ikerketa burutzea erabaki zen. Ikerketa honekin bi helburu bete nahiko lirateke. Lehena, aipatu gaien ezagutza, ahalik eta sakonena ahalbideratzea eta, bigarrena, ikerketa beta lan metodologiari dagokionez eredu edo ildoak zehaztea.???

ta Alaitz San Roman en historiaz mintzo

Herialde eta eskualdearen testuinguruaren azterketarekin hasi zarete, ezta?


Bai, hala da, testuinguru historikoari buruzko erreferentzia bibliografiko eta dokumentalaz aztertzea beharrezkoa izan zaigu, bi arrazoi nagusi direla medio. Alde batetik Lezo ezin da azertu fenomeno isolatu moduan, baizik eta inguruarekin duen eta zuen lotura estua miatuz. Beste alde batetik, herriko ekonomiari buruzko informazio iturri doituak oraingoz urri dira eta testuinguruaz aztertzea eskasia hau gainditzeko modu bat da izan da.

Zer esango diguzue testuinguru horretaz?

Gipuzkoako industrializazio prozesua ulertu ahal izateko, XIX. mendearen hasieratik, gatazka politiko eta sozial korapilotsu baten baitan gertatuko den aldaketa prozesua erabakigarria izango da. Lehenengo (1833-1839) eta bigarren (1872-1876) guda karlisten testuinguruak baldintzaturik,

Euskal Herriko gizarteak eraldaketa traumatiko bat ezagutu zuen. XIX. mendean euskal gizarteak antolatzen zuten lege eta arau sistemak, hau da Foruek, eraso bortitza jasan zuten, Espainiako monarkiaren eta honek Euskal Herriari zuten sustatzaile sozio-politikoaren eskuetatik. Foruen eraldaketa ala ezabaketaren defendatzaileen arteko eztabaidak, 1876. urtean ezagutuko du azken ebazpena, Foruen behin betiko indargabetzearekin. Prozesu honetan guzian, monarkia espainiarra osatzen zuten lurraldeen arteko barne mugak eta Euskal Herriko barne aduanen ezabaketa etengabea izan zen eta, ondorioz, lehengai eta ekoizpenen salerosketarako merkatu zabal baten osaketa.

Gauzak honela, XX. mendearen hasierak industrializazio prozesuaren azelerazioa ekarri zuen. Gipuzkoako industriak 1890. urtearen inguruan hasi zuen bere garapena, enpresa berrien sorrera eta, aldi berean, industriaren sustapenerako elkarte ekonomiko berrien sorrerak kanpo inbertsioak erakarri zituen.



Zeintzuk ziren garai hartako industriaren ezaugarriak Gipuzkoan?

Lehenengoa industriaren presentzia eta kokapen barreiatua edo sakabanatua. Bizkaian ez bezala, hemen deszentralizazioa zen nagusi. Tamainari dagokionez, enpresa txiki eta erdianak ziren nagusi eta azkenik, lan intentsiboa behar zuten teknologiaren ezarritasunak jarrekerik hasieratik izan zuten isla herrialdeko enpresariengatik ikusmoldeetan.

Herrian zentratuta, zer zegoen ikertuta zuek etorri baino lehen?

Ikerketa saioak oso urri dira, industriagintzak izan duen garrantzia kontuan hartzen badugu. Eskualde mailan Miguel A. Barcenillaren lana dago Errenteriar buruz. Herrian badugu Karlos Etchezurietak idatzirik saiakera eta LEZO aldizkarian tarteka azaldu ziren artikuluak. Esango genuke ikerketa alorrean ia dena egiteko dagoela, baina egoera hau ez da Lezoko idazle edota ikerlarien ganora ezaren ondorio, dokumentazio iturrien urritasunarena baizik. Egungo hutsunea bete ahal izateko, beharrezkoa da ikerketa tresnak eskuratzeta eta, gure ustez, Lezoko historiaren ikerketan aurrerapausoak emateko dagoeneko eskura egon daitezkeen iturri hauen ustiatzeta serio bat egin beharko litzateke, epe motzera begira, baina luzaroko eta sakoneko ikusmolde honetaz aritzea da Lezoko duen erronka interesgarrienetako bat.

Urritasun hori kontuan hartuta, zeintzuk izan dira erabili dituzuen informazio iturriak?

Iturri dokumentalen arloan, Lezoko Udal Agiritegia, Gipuzkoako Erregistro Merkantila, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbara izan dira erabili direnak. Iturri bibliografiko moduan memoriak eta urtekariak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eginiko zenbait estatistikez gain. Iturri hauek ez digute eman XX. mendeko ikuspegi homogeneoa.

Kokapenarekin arazoak izan ditugu. Iturri batzuek industriaren kokapen fisikoari egiten diote aipamen. Beste batzuek, ordea, egoitza sozialaren kokapenari, beraz, irizpide eza nagusi izan da. Bestalde, industrializazioak eragin zituen eraldaketa sozialei buruz ez digute hitz egiten eta hau aztertu gabe gure ikuspegia motz geratzen da, ekonomiaren bilakaera, gizakiaren eta bere bizitza eta harreman sozialen azterketa egin gabe, hanka motz geratzen da. Badago zer ikertu!!

Lezoko lehenengo industriak XX. mendeko bigarren hamarkadara arte ez al ziren sortu?


Errenterian XIX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera ikus dezakegu industria modernoaren finkapena. Lezoren kasua ezberdina izan zen. Unión Comercial de Manufacturas Parkers (1911. urtean sortua) gailera eta bizkotxoaren ekoizpena zuzendutako fabrika eta Guittet y Compañía (1912), barniz, pintura eta orokorrean produktu kimikoen fabrika izan ziren Lezoko lehenengo bi establezimendu industrialak.

Beraz, 1910-1920 hamarkadan bi industria izan genituen herrian?

Ez, hamarkada bukatzeaz zegoela, beste hiru enpresa gehitu zitzaizkien aurreko bi horiei. Unión Alcoholera Española (alkohol fabrika) Joaquín Mendía y Compañía (egurrezko ontzi eta kupelen eraikuntza, baita itsasontziarena ere) eta Fábrica Española de Papeles Químicos (papergintza aritu zena).

Nolako entresak ziren?

Aipatu behar den lehenengo gauza, bost industria hauek Gipuzkoako ezaugarri bat islatzen zutela da, hau, da jardueren azpisektoreen dibertsifikazioa. Bost entresekin lau azpisektore ordezkatuta daude: elikagaiak, kimika, papergintza eta zurgintza. Benetan interesgarria.



Eta tamainari dagokionez...

Datu hauen inguruko gabeziak euren benetako dimentsioaz jabetzea ezinezko egiten digu. Enpresen fundazioan ezarritako kapital soziala eta bertan lan egiten zuen langile kopuruaren arabera, tamaina txikiiko industrien aurrean aurkitzen gara Pakers enpresaren salbuespenarekin. Gailera entpresa honek 5.000.000 pezetako kapital soziala eta 51 langile zituen. Beraz hau erdi-mailako entpresa izango litzateke.

Beraz, elikagai arloa nagusi zen?

Bai, eta enpresa honek elikagaien industriari eragiten zion pisu ekonomikoari eta sozialari sagardogintzaren jarduerak eragin zitzakeenak gehitzen badizkiogu, azpisektore honen presentzia handia zela baieztatu dezakegu.

Hurrengo hamarkada askoz oparoagoa izan zen, entpresa kopuruari dagokionez behintzat?

Bai, enpresa berrien ezarkuntza prozesua hirukoiztu egin zen. 1920. urteko hamarkadan Lezon 13 enpresa berri agertu zitzaizkigun erregistraturik. Dinamismo handiko denboraldia izan zen herriarentzat; eta bere egitura demografikoan eragiteaz gain, egitura sozialean bere eraginak ere izan zituen esate baterako, lanbide berriak, etorkinak, langile erakunde sozialen sorrera...

Politika arloan ere urte bereziak izan ziren horiek...

Ez dago zalantzarik. I. Mundu Gerra amaierak egitura ekonomikoen berrantolakuntza ekarri zuen, eta horrek guziki kontinente osoko ekonomiaren suspertzea ekarri zuen. "Urte Zoriontsuak" izan ziren.

Baina ziklo oparo honen amaiera 1929. urteko mundu mailako "crack"-ak ekarri zuen. Estatu mailan Primo de Riveraren diktadura ezarri zen eta, merkatu protekzionista indartuz, egoera ekonomiko orekatua garatzeko baldintzak eskaini zituen. Inguru hurbilari begira, Donostialde osoko garapen industrialaren azelerazioa gertatu zen, eta Lezoko industriaren bilakaera ulertzeko, dinamika horretan kokatu behar da.

Beraz...

Dibertsifikazio prozesuak aurrera jarraitu zuen. Lau azpisektore berri azaldu zirelarik: Oinetakoen industria (Antonio Paredes eta Manuel Alberdi), metalurgia (Domingo Sarachaga eta Zacarias Larrea), kautxu industria (Cardellach y Compañía) eta eskuilen fabrikazioa (Fernando Lobato).

Eta lehendik zeuden sektoreak?

Aurreko hamarkadako sektoreak mantentzeaz gain, indartu egin ziren, batez ere zurgitza lau lantegi berriekin (Iriarte Hermanos, Lorenzo Pasamontes, Eladio Castellanos eta Rafael Sagarzazu). Kimikak bi izan zituen (Compañía de Productos Resinosos eta Establecimientos Boers), papergintzak beste pare bat (Benito Miner eta Papel Record) eta elikagaienak bere hartan eutsi zion.

Enpresa hauek ez ziren aurrekoak bezalakoak, ez da?

Ez, askoz dinamikoagoak izan ziren. Adibide bat aipatuko dizuet. Joaquín Mendia y Compañía-rena. 1924. urtean, Francisco de Iriarte eta Louis Roustán Doufour kapitalistak enpresaren akzionista bihurtu ziren. Interesgarria da jarduera bera garatzen duten enpresari familien arteko harremanak nola eraikitzen zihozten ikustea. Francisco Iriartek, bere anaia Sistorekin batera, kupelgintzan aritzen zen enpresa baten jabe zenak (Iriarte Hermanos), lotura familiarrak sortuak zituen Louis Roustanekin (bera ere kupelgilea) zeinen emaztea, Francisco de Iriarteren arreba zen. Bi hauek hurrengo hamarkadan, hau da, 1931-1940, Iriarte y Roustán S.L. izeneko kupelgintza enpresa sortu zuten, Iriarte Hermanos izeneko desagertu zelarik.

Lezoko demografia eta industria XX. mendean

Gotzon Garmendia Amutxastegi
Alaitz San Roman Uranga



Eta horrela 30eko hamarkada ailegatu zen...

Bai, eta haiekin ezegonkortasun fase bat, bai politikan, bai ekonomian. Egoera honek inbertsioa atzundu egingo du eta koituntura ezkorra sortu zuen. Ekonomiaren deskapitalizazio handia gertatu zen. Langile mugimendua eta alderdi ezker-tiarrak piztu ziren eta guri dagokigun gaian, Lezoko enpresa batzuk desagertu ziren, zortzi, hain zuzen ere. Pentsa daiteke ezinezkoa egin zitzaizela koituntura ekonomikoaren aldaketak ezarri zituen baldintza berrietara egokitzea eta, aldi berean, birmoldaketak beharko zituzkeen kapital berriak erakartzea.

Dena negatiboa izan zen beraz?

Ez, hamalau enpresa berri sortu ziren garai honetan, nahiko harrigarria egoera aztertzen badugu, baina horrela suertatu zen, gure iturrien datuen arabera. Oihalgintza agertu zen (Jose Oliac) eta lehendik zeuden sektoreei izen batzuk gehitu zitzaizkien (Clemente Goldaracena itsasontzigilea, Forjas de Alcalá, Francisco Ollacarizeta kautxularia edota Viuda de Sánchez argizari fabrika)

Eta Guda Zibilarekin egiten dugu topo, ondorio larriak izango zirela pentsatzen dut...

Gerra Zibilak krisialdi politikoa, ekonomikoa, demografikoa eta humanoa eragin zuen. Lezoko populazioak une larriak jasan zituen. Hazkundearen barealdia etorri zen eta guda bukatuta berriro ekin behar izan zioten Lezoko industriaren garapenari

Eskerrik asko Alaitz eta Gotzon, baina zuen lana ez da aipatutako edukietan gelditzen...

Ez, jakina, gure ikerketa askoz sakonagoa da, eta bigarren atala du, hemen oso gutxitan aipatu duguna eta demografiari eskainia dagoena.

Badakizue orduan, gehiago jakin nahi baduzue, Aranzadi elkarteak egin duen ikerketa eskuragarri daukazue. Eskerrik asko berriro eta hurrengora arte

Zuei •



LEZOKO BASERRIEI BURUZKO GOGOETA

Baserria dela eta ez delá, Lazkao Txiki etortzen zait burura. Hark, baserria gai hartuta, honela bukatu zuen behin bertsoa: “nik baserria ikusten dut gure euskara bezala”. Honekin esan nahi dut, bai euskara eta baita baserria ere bihotzean sentitzen ditudala eta biez iritzi beretsua dudala. Lezoko baserrien historia, Gipuzkoako beste zenbait herrieta-koen berdintsua izan da.

1908. urteko biztanleen erroldaren arabera, Lezok 1.313 biztanle zituen, horietatik erdiak baserri gunean bizi ziren eta biztanleen %70ak 18 urte baino gutxiago zituen. Proporzio honi urtetan eutsi zitzaion, baina duela 30 urtetik gaur bitarte baserri guneko biztanleen jaitsiera beldurgarria izan da. Gogoan ditut oraindik, zaharra ez izan arren, Patxillabordan bizi ziren 17 neska-mutilen izenak: Jose Leon, Marikarmen, Maria Jesus, Imaku, Maitere, Arantxa, Jesus, Iñaki, Edurne, Jon eta Joakin alde batetik, eta beste bizitzan, berriz: Marikris, Juan Jose, Ana Mari, Jose Antonio, Lorentxo eta Agustín. Gaur berriz, Gaintxurizketa osoan, 60 baserriren artean, 18 urtetik beherako 9 gazte biziko dira eta gehienak 10 urtetik hona egindako etxe berrietan, inor gutxi tradizionala deitu genezakeen baserrian.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, herriko baserrietako gazteak baserrietik kanpoko lanbideak hartzen hasi ziren eta bide berriak hartu ahala, baserrietik kanpo bizitzen jarri ziren. Oso gazte gutxik jarraitu zuten baserriko bizibidea eta egun Lezon, 60 baserri inguru dauden herri honetan, baserriko lanbide hutsetik bizi den 50 urtetik beherako baserritar bakar bat ere ez dugu.

Etxeak ez dira hustu, baina biztanleak zahartu egin dira. Baserriek eta familiek ez dute jarraipenik izan, dagoeneko ez dago haurrik gure auzoan.

Etena egina dago, familia eta baserriaren lotura hautsia dago betiko, lurra eta bizibidearen artekoa ere, uste baino azkarrago ikusiko dugu gure lurra desagertzen, urtetan baserrietan bizitu diren familiak galtzen, lurra natura eta biztanleriaren arteko katea hausten. Baina, aldiz, ikusiko ditugu, igandearako erabiliko diren etxe edo baserri erreformatuak ugaltzen, hesi, txakur eta kamera bitartez zaindutako gune berri eta itxiak sortzen eta, bide batez, egungo lore-saltzaileen eta lorezainen bezero izango diren masa soziala ezartzen. Hau da espazio irekietatik, gune itxietara pasako gara.

Arazoak arazo, gauza da bertako gazteria ez dela baserrian gelditu eta Behemendiko gerente Juan Kruz Alberdik dioen bezala, baserria nekazal ustiakuntza izatetik etxebizitza funtzioa egitera pasa da.

Alde batetik, nekazal guneek, bere horretan garatzeko eta aurrera egiteko, beharrezkoa duten transmisio mekanismoa etenda gelditu da, ez dago gazterik jardun honi jarraipenik emango dionik. Jarraipenik ez dagoenean, ustiaketak ez dira



modernizatzen, ez da inbertsiorik egiten, lurak ez dira lantzen, eta larre lur izatera pasatzen dira. Esne-behiak izatetik, garai batean herrian ziren bezala, larre behiak edukitzera pasatzen dira, ondoren ardiak eta zaldi azienda, eta azkenean ahuntzak eta zuhaitz landaketak.

Gure baserrien gabezia estrukturalak eta nazioarteko merkaturak-eta, prezioen konpetibitatean ezartzen dituzten neurriek ekonomikoki ito egiten dute gure baserrien ahalmen konpetitiboa. Guk ezin dugu 30 egunetan, 2 kiloko oilaskorik lortu, ezta egunean 60 litro esne emango duen esne-behirik eduki ere. Horretarako granjero izan beharko genuke eta zebaderoak eduki, eta zerbaitegatik, ez dugu pauso hori eman.

Baserri lurren osotasuna, zatitzen hasten da, senideen artean partitu egiten dira eta legeak utzitako zirrikitu guztiak erabiltzen dira lur-segregazioak egiteko.

Garai bateko baserri jardunekin zerikusia duten beste zenbait aktibitate sortu eta bultzatzen dira: agroturismoa, errestaurazioa, zaldi-pikaderoak, plater-tiraketa guneak, jatetxeak...

Hiriaren eta industriaren presioa ere ikaragarria da. Industriak, garai batean sinesgaitzak izango ziren prezioak eskaintzen ditu lur industrialarengatik, hiritarrek beste hainbeste txabola egiteko erabil lezaketan lur zatiarengatik.

Etorkizunerako zer dugu Lezorako: nekazaririk gabeko lurralde bat.


- Lur asko jabez aldatuko dira.
- Nekazal lur onenak desagertu egingo dira.
- Baserriko bizibidea desagertu egingo da.
- Libre geldituko diren nekazal lurak, lurrik aldrebesenak izango dira eta pixkanaka sastrakak hartu edo baso bihurtuko dira.
- Egun arte bizirik egon den baserria, hau da, etxebizitza eta ustiaketa uztartu izan dituen, desagertu egingo da, eta etxebizitza soil bihurtuko da.
- Lur zatiak, beste zenbait aktibitateetan aritzen diren biltegi bihurtuko dira (igeltseroen materialak gordetzeko, kamioiak, garabiak ...).
- Betelanak, hosteleria, agroturismoa, eraikin berriak egiteak ahalbidetuko dituen aktibitateak, aisia guneak ugalduko dira.
- Gure baserri lurra zatikatu, hesitu eta era modernoan atonduko dugu. Espazio irekietatik gune itxietara pasako gara, eta "terreno particular", "cuidado con los perros" jartzen duten kartel mordoak ikusiko dugu bazterretan.



LEZOARRAK



ETA ITSASOA



Euskal kostaldeko gainerako hiri eta herrietan gertatu den bezala, itsasoaren hurbiltasunak erabat baldintzatu du herriko historiaren bilakaera. Eta denboran atzera eginez gero, ikusiko dugu eragin horren lehen aztarnak oso urrundik datozkigula. Hain zuzen ere, Jaizkibelgo azken aurkikuntza arkeologikoei esker, badakigu Lezo sortu baino milaka urte lehenago, historiaurreko garai ilunetan, inguru hauetako biztanle urriak itsasbazterreko arroketan bildutako gaiez ere elikatzen zirela.

Antzin Aroan, bestalde, Kristo aurreko azken urteetan, guda-aroste erromatarrek Bidasoa eta Oiartzun ibaien arteko lurretara iritsi ziren, eta bertako ondasun naturalak Erroma handiaren esku geratu ziren. Hala, Oiasso hiria fundatu zuten eta, berrehun urtez bederen, Aiako Harriko zein ingurutako meategiak ustiatu zituzten. Eta, nola ez, erauzitako berun, zilar eta gainerako meamotak ontziratu eta itsasoz garraiatzeko, Lezo eta Pasaiaiko itsasadarra ere erabili izan zuten. Horren lekuko dira, besteak beste, Pasaian agertutako txanpon erromatar bat, eta Erreterian aurkitutako brontzezko iruditxoak.

GASKOIAK

Mila urte geroago, Erdi Aroan, Nafarroako eta Gaztelako erregeen politikari esker, merkatarik gaskoiez osatutako taldeak finkatu ziren gaur egungo Lezo, Pasaia, Donostia eta Hondarribian. Hala, XIII. mende hasierako Lezon Guillermo de Lazon zalduna gailendu zen, eta itsas kutsuko toponimo gaskoiak errotu ziren: Cai, Port de Lazon, Port de la Borda... Harezkerok, arrantzak, merkataritzak eta gainerako itsas jarduerak izugarritzko garapena izan zuten; aipatutako gizatalde horiek izan baitziren, mende batzuk lehenago, ipar Europatik iritsitako normandoen jakintza teknikoaren hartzaileak.



PILOTUAK

Ez da harritzekoa, beraz, XVI. mendean Lezoko pilotuek nabigazio kontuetan lortu zuten maila bikaina. Oso estimatuak ziren itsas armadako galeoietan. Miguel de Arizabalo, Domingo de Arizpe, Martin de Arpide, Ramus de Irura, Miguel eta Juan Martin de Iturain anaiak, eta Domingo de Mancia garai hartako trebeenetakoak izan ziren. Eta zer esanik ez Jaimes de Zamora pilotu nagusia, Felipe II.aren erregealdian Amerika, ipar Europa zein Mediterranioko itsasbazterrak aztertzen aitzindaria, eta "Mareas derrotas" izeneko tratatuaren egilea. Haren ondorengo pilotuak lan tekniko horretaz baliatu ziren, baina, zoritxarrez, gaur egun testua galduta dago.

Nabigazioko aditu horien lekukotasuna Kale Nagusiko 6. zenbakian dugu, alegia, Marigozona etxean. Hain zuzen ere, bertan bizitu zen pilotuaren lan-tresnak ageri dira ateko giltzarrian zizelkatuta: hondar-erlojua, konpasa, ipar-izarra eta haize-arrosa. Gaur egun irudi hori Lezoko itsasgizonen oroitarria ere bada, neurri batean.

LANBIDEAK

Itsasgizon horiek urrezko aro bat bizitu zuten XVI. mendean; errege pribilegioek, Ameriketako lur aurkitu berriek eta Espainiako inperioaren hedapenak ahalbidetutako aukera berriei esker. Jarduera ugari burutu zituzten; gerra, kortsaritzza, merkataritzza, itsasbazter zein itsas zabaleko arrantza... Hala, itsas armadara joaten ziren frantses, ingeles edo holandarren aurka borrokatzera. 1588an, besterik gabe, Felipe II.ak Ingalaterrara bidali zuen Itsas Armada Garaitezinean sei lezoar zendu ziren. Edo artilea eta burdinazko gaiak esportatzen zituzten eta, besteak beste, oihalak eta oinarritzko elikagaiak inportatzen. Isastitarrak, esate baterako, gariaren garraioan nabarmendu ziren. Edo Ternuaraino joaten ziren bakailaoa arrantzatzen, ontzietako sotoak jakiz eta sagardoz beteta; eta baita baleak harrapatzen ere. Denborarekin, ordea, Norvegia bilakatuko zen baleazaleen jomuga, Domingo de Yanzi kapitainaren kasuan bezala.

ONTZIOLAK

Ontzigintzak ere garrantzi handia izan zuen herriko ekonomian; zurgin, itsasarotz eta baserriar askoren irabazpide bilakatu baitzen. Jarduera hori Port de la Bordan burutu zen, Errotetatik gertu. Lehenik herriko ontzigile partikularrak aritu izan ziren. Juanot de Villaviciosa zaharra almiranteak, esate baterako, 346 eta 700 tonako bi nao eraiki zituen. Ondoren, 1597an, Lezoko errege ontzi olak eraiki ziren, Antonio de Urquiolaren zuzendaritzapean. Bertan, neurri handiko galeoi asko egin ziren, itsas armada eta Ameriketako ontzidiak hornitzeko batik bat. Eta horien artean, 1609an, garaiko itsasontzirik bel-durgarriena: 1.200 tonako "Nuestra Señora del Pilar y Santiago". 1632an Port de la Bordako errege ontziolen gainbehera hasi zen, eta XVIII. menderako oso egoera txarrean zeuden. Geroago, Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarrak biltegi bat izan zuen bertan.

GURUTZEA

Herriko zein kanpoko itsasgizonek, bestalde, Amerikaren aurkikuntza baino lehenagoko garaietatik debotzio handia izan zioten plazako Gurutze Santuari. Zaindari moduko bat bilakatu zen beraientzat. Eta une latzetan, ekaitzaren mende zeudenean, edo et-

Dijo sex de treinta años. —
Fran. de Echeverria marino que anave
gado en el dho Servicio de Su Mag.ª Conel
oficio de Pedro al Corso y ala pesquisa
de Ballenas Conel Capay de Comdestable y.
Dijo sex de edad de treinta y seis años —
El Capitan y piloto Joze de Echeverria
natural de esta dha Universidad de edad.
de treinta y quatro años que actualmente
sealla en la Carrera de Indias —
El Capitan y piloto Juan de Vaz

saia aurrez aurre zutenean, zertxobait sosegatzen ziren beren burua hari gomendatuz gero; halaber, negua Ternuako izotz artean igarotzen zutenean ere. Hala, askotan etortzen ziren kapitainak eta tripulazio osoak, oinutsik eta alkandora hutsetan, basilikan meza entzun eta limosna ematera. Edozer izan zitekeen egokia gurutzeari eskerrona adierazteko: gantz-upe-la, urrezko txanponak, oihal dotoreak, zilarrezko lanpara edo ontziaren irudia. Tarteka Ameriketatik ere iristen ziren emariak, Habana eta Mexikotik, esate baterako.

INDIAK

XVII. mendean geroztik, poliki-poliki, itsas jarduera gehien ahultzen joan ziren. Krisi garaiak ziren eta, horretaz gain, itsasadarra lohiz betetzen ari zen etengabe, ontzien sarrera-irteerak gero eta gehiago mugatuz. Halere, oraindik bazen kortsari, artilarri edo baleazalerik Lezon. Marinel gehienek, ordea, Indietako (edo Ameriketako) bidaian zeukaten irabazpidea, eta Veracruz, Habana, Cartagena edo Buenos Aires bezalako portuak oso ezagunak zitzaizkien. Bazan kapitain zaildurik ere: Juanes de Darieta, Juan de Dorronsoro, Jorge de Echeberria, Francisco de Endara, Francisco de Escorza, Gaspar de Muru, Juan Nuñez de Iturain eta Esteban de Villaviciosa, besteak beste.

Bestalde, herritar asko joan egin ziren Ameriketara, hemengo baino bizimodu hobego baten bila.

KONPAINIA


1728an, ordea, Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarra sortu zen Donostian, eta horrek itsas jardueren susperraldia ekarri zuen. Konpainiak Venezuelako kakaoaren monopolioa zeukan, eta baita kontrabandoa jazartzeko eskumena ere. Itsasontziak Pasaiako portutik zuzenean joaten ziren Venezuelara, Andaluziatik igaro gabe. Eta horietan lezoar asko ibiltzen ziren itsasmutil, marinel edo artilarri lanetan. Garai hartan La Guaira, Maracaibo eta Puerto Cabello bezalako portuak ziren ohiko helmugak; eta, esate baterako, Juan Felipe de Echanique, Lezoko kargudun izandakoa, Puerto Cabelloko bost etxeren eta zenbait biltegiren jabe zen. Gero, Frantziako Iraultza (1789) baino lehen, konpainia desagertu egin zen. Eta XVIII. mendearen bukaeran ia ez zegoen alturako itsasgizonik herrian.

ARRANTZALEAK

XIX. mendearen hasieran Lezok bere historiako garai ilunenetako bat bizitu zuen. Konbentzioko gerra

(1793-1795) ez zen bukatu zaharra, eta Independentzia gerrak (1808-1814) miseria areagotu egin zuen. Egoera horretan, bi baino ez ziren lezoarren lanbide nagusiak: nekazaritza eta itsasbaterreko arrantza. Azken horri esker, ez zen gose handirik ezagutu. Zorigaiztoa, ordea, ez zen tropen gehiegikerietara mugatu. Hala, gerra ondoren, 1816an txalupa bat urperatu zen, eta bertan zihozzen bederatzi arrantzale ito egin ziren. Eta 1817an beste txalupa bateko zazpi arrantzale ito ziren galerna baten ondorioz. 1821ean oraindik itsasgizon asko zeuden herrian: sei patroiz eta hirurogeita hamar arrantzale, hain zuzen ere.

Lehen Karlistada (1833-1839) bukatu ondoren, ordea, egoera erabat aldatu zen. 1845ean Errenteriako "Sociedad de Tejidos de Lino" lantegia sortu zen, bailarako industrializazio kapitalistari hasiera emanez. Harrezkero, neurri handi batean, fabrikek hartu zuten arrantzaren lekua. Lezoko historiaren orri bat itxi zen betirako •



Ze berri?

ERROMATARRAK

Lezo herriaren sorrera 1203. Urtean kokatzen badugu ere, argi dago askoz lehenago gizakiak hemen bizi izan zirela. Aiako Harritik Oiartzun

bailarako isuraldean erromatarrek Arditurriko meategi garrantzitsuak eduki izanak Oiartzun ibaiak eta Lezo-Pasaia badiak izan zuten garrantzia bermatzen dute, meategiko produktuen irtenbide gisa Hispania Akitaniarekin lotzen zuen itsas garraioaren bidean sartzeko. Lezok badiak izan zuten kokagune estrategikoak bidea ematen digu hipotesi gisa seinatzeko bere lurretan erromatarrek portu bat eduki izana, gaur egun San Joan Bataiatzailearen eliza aurkitzen den muinoaren babesean. Interesgarria da zenbait toponimoren esistentzia egiaztatzea. Adibidez "Port de Lazon" XIII. mendean eta "portua", XVII. mendean Zubitxoren inguruetan, gaur egun badiako uretatik lehorrerantz urrun aurkitzen diren puntutan. Bestalde, inguruetako jatorrizko biztanleek aldaketa handirik gabe segitu zuten beren artzain erako ekonomiari eusten, urtaroaren arabera, Jaizkibelgo larreetatik barne aldeko mendietara lekuz aldatuz.

AUZOKIDEAREKIN AUZITAN

Ugari izan ziren Lezo eta Hondarribiaren arteko tira-birak, besteak beste mugarriak zirela eta. Baina ez ziren bakarrik. Adibidez, 1903an Hondarribiako Udala kexatu egin zen, Lezoko artzainek Jaizkibelgo eremu komunaletan egiten zuten artzantza gehiegizkoa zela

esanez. Urte horietan, Jaizkibelgo eremu komunaletan azienda lapurketak ugaritzen ari zirenez gero, Hondarribiako Udalak behiak eta zaldiak sutan jarritako burdinarekin eta ardiak kolore zehatz batekin marka zitzen agindu zuen.

GUDAK ETA ZERGAK

Independentzia gudaren garaian (1808-1814) egoera ekonomikoa arras larritu zen. Frantziar agintari militarrek kontribuzio ugari ordainarazi zizkieten arrunt pobretuak zeuden herritarrei; egurra, ardoa, laboreak eta dirua. 1812an hileroko kuotaz gain, Irunen entregatu beharreko 183 anega gari eta 106 anega arto kupoa ezarri zieten lezoarrei. 1813ko apirilean intendentearen aginduz, egun bateko epean 1.000 erreale ordaindu behar izan zituzten 50 mando erosteko. Nahiz eta kopuru hori ordaindu, epe barruan 160 erreale besterik ez zuten pagatu orduko lezoarrek eta soldadu frantsesek kapitane erregidore kabua eta bi benefiziadun Iruñera eraman zituzten eta hantxe egon ziren preso. Horren aurrean, 1813ko uztailaren 13an kontzejuak, exekuzio militarren beldurrez, Olazuriaga baserria saldu zuten belloizko 34.000 errealetan zorra ordaindu ahal izateko. Handik egun gutxitara, armada espainola eta ingelesak iritsi zirenean, lezoarrek gogoz lagundu zuten frantsesak kanporatzen. Hala ere, soldadu ingelesak zenbait hilabetez parrokian akantonatuta egon ziren hari eta 1814an ontziratu ziren arte.



XVII. MENDEKO ERROTAK

Errota batzuk baziren garai hartan herrian. Lezoandia etxearen jabegokoak bi: Lehenengoa gaur egun kiroldegia dagoen tokian zegoen, Bekoerrotaz izenez ezaguna eta bi errotarri osatuta. Bestea, Goikoerrotaz izenekoa, Martizkone eta Olatzar baserrien artean dagoen ibarraren azken muturrean kokatzen zen, Urdaburu auzoaren atzean. Gaur egun errenkasarrera uharka gordetzen da, baratze sail bat banatzen duen harresi batean. Beste hirugarren batek, Borda Andia etxearen jabegokoa, Errotatxo izenaren eta errota oraindik gordetzen da, Kostaburu errekararen ondoan dago. Hemengo errotariak dirutan ordaintzen ziren hainbateko bat herriko elizei limosna gisa biltzen zen irinarekin truke.

JAIZKIBEL

Arro Modernoan (1492-1879) Lezoko ekonomian berebiziko garrantzia izan zuten Jaizkibelak. Bere natur ondusunak era arrazoizko batean ustiatu ziren, hauen artean, bertako erreka eta iturrietako ur garbia gertatzen da

aipagarri; baita etxeak egiteko, errotariak egiteko eta harlauzetarako bertako hondar-harria ere; gaztainondoak eta egurretarako nahiz itsasontziak egiteko zuhaitzak; karobietarako otea, eta abereentzako larreak eta iratzea. Herri lurrek, ondasun hauek familiarik behartsuenek ere baliatu zituzten lortu zuten.



KUTSADURA

Ekonomia jardueraren ondorio txarrenetakoa kutsadura dugu. Lezoko airearen kalitatea asko hobetu da, baina oraindik geratzen dira gure inguruan hainbat aktibitate kutsakor, besteak beste Iberdrolaren zentral termikoa eta kaiako zamaketa lanak. Lezo 1 eta Lezo 2 kaiet "instalazio berezirik behar ez duten granelak" kargatzeko eta deskargatzeko erabilpena eman die Pasaiaiko Portuaren Agintaritzak. Erabilpen hau dela medio, Lezoko kaiatik nahiz errepedeatatik material ugari bezain zikinak igarotzen dira. Haien artean, txatarra ezberdinak, kizkurra, ongarri kimikoak, pirita, porlana eta mineral mota ugari. Urtean zehar milaka tona garraiatzen dituzte itsasontzi eta kamioietan, haien hautsak airean eta inguruan sakabanatuz eta bideetan zehar materiala galduz. Honetaz gain, zarata edo kutsadura akustikoa ere jasan beharra daukagu. Inoiz amaituko al da pirairen historiko hau?

LEZOKO HARGINA

Pasaiaiko badia portu naturala izan denez, gizakiak egin dituen lanak ez dira oso garrantzitsuak izan, eta luzeera eta sakontasuna aprobetxatuz, zamaketa lanak errazteko eraikinak egin zituen. Obren inguruan gordetzen diren dokumenturik zaharrenak XVI. mendekoak dira, baina bertan, lehenago egindako lan batzuen aipamena egiten da. Gauzak horrela, 1654. urtean, kai berri bat egiteko kontratua sinatu zen, eta lan hori aurrera eramateko arduraduna Francisco de Aguirre izan zen, Lezoko hargina, alegia. Beraz, Pasaiaiko Portuak,



garraioak ez ezik, eskualdeko bestelako jarduera ekonomikoak ere bultzatu zituen XVII. mendearen erdialdean.

ERREPIDEAK


Erreperia-Oreoretatik Lezora doan bide horren historia ez da oso zaharra. Dirudenez 1840 inguruan, lehendik zegoen gurdibidea

konponduz, bidexka bat antolatu zen. 1866. urtean konpondu eta zabaldu egin zen eta gaur egun Donibaneraino kontatuta 3,2 kilometro luzeera du. Lehenengo kategoriako bide bezala sailkatuta dago, bere ibilbide osoan zazpi metroko zabalera baino gutxiago ez baitu, eta Altzate inguruan Madrid-Irun errepede nagusiarekin egiten du bat.


INDUSTRIALDEAK ETA TOPONIMIA

Fenomeno berria bada ere, herriaren kanpoaldean industrialdeak finkatzeko prozesura ohituta gaudela ematen du. Herriko lehenengo bi poligonoek ez zuten izenik eta bereizteko edota aipatzeko orduan beren legezko banatze zerbakiak erabiltzen ziren, eta gainera erdaraz, 103. industrialdeari "ciento tres" eta 108.ari "ciento ocho". Gauzak horrela, Lezoko Kultur Batzordea izendapen berri baten bila hasi zen eta 1987ko urriaren 19an, Gobernu Batzordeak izenak onartu zituen. 108. poligonoa zabalera batean kokatzen da eta bertan bi izen zeuden. Behoko aldeari Letaman esaten zitzaion eta goikoari Iturrin. Bigarren hau zabalagoa dela kontutan hartuta ITTURREN INDUSTRIALDEA izena hautatu zen. 103. industrialdeko lur gehienak, ordea, Sagasti baserria zegoen eremuetan daudela kontutan hartuta, SAGASTI INDUSTRIALDEA izan zen izen aukeratua. Hau da beraz, industrialdeen izenen istoriotxo.






IKUSI



IRAKURRI



ENTZUN



kritikak

TAMBIEN HAY CIELO SOBRE EL MAR

Jose M. Zabala



Lourdes Hierro

Lezo baino, eskualdeko ekonomia hobeki islatzen duen filma aukeratu dugu Orratz! berezi honetarako. Zuri-beltzean egina, luze-metraje tragiko baino tragikoago hau, Jose M. Zabalak idatzi eta zuzendu zuen 1955ean.

Pasaiaiko portura lan egitera datorren familia baten istorioa kontatzen digu. Familia honek gorriak ikusi zituen aurrera ateratzeko. Alde batetik gizonak ez du lanik aurkitzen eta bestetik, bere emazteak (emakume puska!) herriko armadore eta jauntxoaren desioak piztuko ditu. Armadoreak Ternuara bakailaia harrapatzera doan ontzi batean sartuko du gure protagonista, hilabete batzuk kanpoan edukitzeko eta emakumearenganako bidea libre edukitzeko. Baina boterea ez da beti zorte ona, eta ezusteko ederrak gertatuko dira...

Pelikulak garaiko bizimodu zaila azaltzen digu, bai ekonomia mailan baita gizartearenean ere. Filma ikusi ondotik bi ondorio atera nituen. "Gaizki hasten den gauzak ez du zertan gaizki amaitu behar" eta "Itsasoaren gainean ere zerrua dago" .

LEZO HERRIAREN IKUSPEGI SOZIO-POLITIKO-EKONOMIKOA



Aurreko zenbakian bezala, beste ezohiko irakurgai bat aurkeztu nahi dizuegu oraingoan ere. Aurrekoa aldizkari bateko artikulua bazen, honetan herritar batek egindako ikerketa baten berri emango dizuegu. Harrigarria bada ere, hurrengo urtean

20 urte beteko dituen lan hau, argitaratu gabe dago eta ale batzuk baino ezin dira aurkitu, makinaz idatziak eta maketazioa mereziko zuena baino askoz pobreagoa izanik. Hauetako bat Udal Liburutegian dago, Lezoko Txokoan hain zuzen ere. Hau da Lezoko herriari buruz egin den lanik entziklopedikoena, gai asko jorratzen baititu: Herriaren deskribapena, Lezo eta bere historia, Udal ondarea, Gizartea, Jaizkibel mendia, Lezoko ekonomia, demografia, kultura eta kirolak. Bukatzeko, eta ikerketari balio handiena ematen dion atal bibliografiko pobre baino pobreago bat. Zer esan nahi du honek? Ba ikerketan azaltzen diren datu gehienak iturri zuzenetatik hartuak direla, horrek daukan lan eskerga eta batez ere, balio historikoa ikaragarria izanik. Bukatzeko Karlos zoriondu nahi nuke eta, era berean, udala animatu, lan hau merezi duen moduan argitaratua izan dadin.

INTERNAZIONALA



Karl Marx

Sistema kapitalista ezarri zenetik, ekonomia baldintzatu duen eragile handienetarikoa klaseen arteko borroka izan da. Lezo ez da sindikalgintzan gehiegi nabarmendu den herria izan, baina hala ere, ezin dugu ahaztu urteetan zehar bere bizitza guztion baldintzak hobetzera dedikatu duen gizon eta emakume taldea. Haien zatia doa, musikari dagokion atal honetan, munduko langileria-aren eserkia den "Internazionala"

Zutik lurtean kondentatu zaren langile tristea nekez ginen elkarganatu indarzu albiristera.

Gertatuak ez du ardura jende esklabua jeiki aldaketak datoz mundura nor den herriak badaki.

Oro gudura ala! bihar izan dadin Internazionala pertsonaren adin

bibliografia

Lezoko ekonomiari buruz gehiago jakin nahi baduzue, Udal Liburutegian, besteak beste, liburu eta artikulua hauek irakurgai dituzue

Aranzadi elkarte: Lezoko gida

Etxezurieta, K: Lezo herriaren ikuspegi sozio-politiko-ekonomikoa

Garmendia, G. eta San Roman, A.: Lezoko demografia eta industria

XX. mendean

Murua, A.: Lezoko baserriak

Esnaola, I. eta Agirretxe J.L.: Lezoko euskararen azterketa

Lankide Aurrezki Kutxa: Analisis descriptivo comarca Renteria-Pasajes

EUSTAT: Udal adierazleak

Reizabal, G eta beste: Pasajes, un puerto, una historia

"Lezo" aldizkari artikulua

Martinez Isasi, I: Del lugar de Lezo... astilleros reales y santuarios (1 zbk.)

Zabarre: Gainturizketako industrialdea eta kanpo aldeko... (1 zbk.)

Zabarre: Lezo itsasoaren aurrean (2 zbk.)

Agirre, A.: Los molinos de Lezo (2 zbk.)

Agirre, A.: Evolucion demografica de Lezo (3 zbk.)

Zurutuza, L.: Korsoa,

arriku handiko iharduera (4 zbk.)

Presentacion, J.: Armada Garaiezina eta Lezo (5 zbk.)

Mazusta, R: Lezoko elkarte sozio-ekonomikoak (zbk.5)

Barrentsoro, K.: Sagardogintza Lezon (5 zbk.)

Etxezurieta, K.: Lezoko nekazaritza XIX. mendean (5 zbk.)

Etxezurieta, K.: Lezoko nekazaritza XX. mendean

(6 zbk.)

Zurutuza, L: Lezoko sagardogintzaren akabera (9. zbk.)


Etxezurieta, K.: Lezo Urrestieta, kontrabandista abertzalea (10 zbk.)

Aukenerena, J.: Balearen arrantza (13. zbk.)


Iturri zuzenak izaten dira onena. Beraz, Udal Artxibo Historikoan herriaren historiari buruzko testigantza zuzenak aurki ditzakezue

moko-goxo

Ekonomiaren etorkizuna ordenadoretan eta interneten omen dago. Momentu hori ailegatzan den bitartean, sarearen erabilpen ludikoagoa proposatu nahi dizuegu Moko Goxo berezi honetan, www.lezo.net webgunetik argazki zahar bat nola lortu, alegia. Guk bidaia tiki bat besterik ez dugu egin, zuen esku dago galeria honi etekin gehiago ateratzea.




Egin beharreko lehen lana www.lezo.net orrian sartzea da.



Orrian gaudela, eskubi aldean dagoen, "argazki zaharren galeria" klikatuko dugu.




Argazkien sailkapena agertuko da ondotik. Agertzen den lehen gaia Eliza da. Azpisailak ere badira.



Elizaren barruan, apaizak azpisaila aukeratu dugu. Gai eta azpizalder horretan 10 argazki daudela ikusi dezakegu.



Lehenengoaren gainean klikatu dugu, eta argazkia ikusi dezakegu.



Argazki galeriak, komentarioak egiteko aukera uzten du. Argazkiaren balorazioa ere egin daiteke, aurpegitxoak erabiliz.



Atzerapauso bat eginda, eskubi aldean beste gai batzuk ere badirela ikusi daiteke. Guk "pertsoneiak" gaia aukeratu dugu.



Pertsoneiak sailean agintariak azpizailan klikatu ondotik, lau argazki daudela ikusi dugu.




Lehen bezala, argazkietako bat aukeratu eta pantailan ikusteko aukera dugu.



Argazkiaren gainean ikur batzuk ikusten dira. Horietan klikatuta ere gauza berriak ezagutu ahal izango ditugu. Guk "i" klikatu dugu.



Ikusten ari garen argazkiaren inguruko informazioa agertzen da. Zein urtekoa den, agertzen diren pertsonaiek eta beste.



Zineman erabiltzen den klaketa antzeko batean klikatuz gero, azpizalde horretan agertzen diren argazki guztiak ikusiko ditugu bata bestearren atzetik.

lehiaketa

Hona hemen zenbaki honetako lehiaketa. Lehenengo zutabean ditugun izenak oso ezagunak dira, besteak beste, gure herriko kaleen izenak direlako. Baina badakigu zergatik diren ospetsu, badugu kale bat izateko egindako merituen berri? Bigarren zutabeko mikro-biografian dagozkien izenekin lotzea baino ez duzue egin behar liburu, disko eta bideo sorta zoragarria lortzeko. Orratx! aldizkariaren egoitzara ekarri edo bestela Oroitzene AEK euskaltegian edo Aiton Bordan. Interneten bidez ere egiteko aukera dago, orratx@topagunea.com helbide elektronikoaren bidez. Zorte on!!!!

Hala egin zuen **Juani Etxandik** eta aurreko Orratx 800!-eko irabazlea bera dugu. Berarentzat izan da argazkian duzuen opari-sorta ederra. Zorionak!!!



GURE KALEAK

1	Agustina Lizarazu	A	Juan Joxe Sarasola, Gaintza baserrian sortutako bertsolaria (1897-1952)
2	Antonio Pildain	B	Lezoko parrokiako organo jole bikaina, musikari eta "Schola Cantorum"eko zuzendaria (1879-1958)
3	Elias Salaberria	C	Literaturagile ospetsua eta margolaria (1815-1872)
4	Eugenio de Ochoa	D	Parrokiako bikarioa eta teologia-doktorea. Lezoar idazle eta historiagile famatua. "Compendio historial de la Provincia de Guipúzcoa" lanaren egilea (1560-1612)
7	Frantzisko Gaintza	G	Kanarietako Gotzaina eta Gipuzkoako Diputatu nazionalista Madrilgo Gorteetan (1890-1973)
8	Guillermo de Lazon	H	Pintore ospetsua eta Madrilgo San Fernando Arte Ederretako akademikoa (1883-1952)
9	Hipolito Gezala	I	Irungo parrokiako erretore, historiagile eta idazlea (1658-...)
6	Karlos Saldise	F	Lezoar maistra eta katekista (1873-1965)
5	Lexo Bertsolaria	E	Pasaiako entresari abertzalea. BVEek Lezon eraila (1946-1980)
10	Lope de Isasti	J	1203an Lezoren fundatzailea eta Lezoaundiko baroia

ERANTZUNAK:

1. 2. 3. 4. 5. 6. 7. 8. 9. 10.

IZEN-ABIZENAK: TELEFONOA:



Elias Salaberriaren lan bat erabiliko dugu ekonomiari buruzko zenbaki berezi honi amaiera emateko. Margolari honek, bere lanetan, herrikideen bizimodua eta lanbideak islatzeko ohitura zuen. Hona hemen 1928. urtean egindako "Union Española de Explosivos" entresako hainbat langileen erretratua.

Lezok

